AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRIZAINGO SAILA

3412

144/2012 DEKRETUA, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Administrazio eta Zerbitzuen zuzendaria kargutik kentzen duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluko j) idatz-zatian, 26. artikuluko 6. paragrafoan eta 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herrizaingoko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko uztailaren 17an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– José Luis Ramos García jauna Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Administrazio eta Zerbitzuen zuzendari kargutik kentzea, beste kargu bat beteko baitu Administrazioan, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

2. artikulua.– 2012ko uztailaren 7tik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko uztailaren 17an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.